

ERANSKINAK

1. eranskina

J. R., ikastolako irakaslea eta lehen hezkuntzako bigarren zikloan *Science*-eko arduraduna den irakasleari egindako elkarrizketa.

1. Noiz hasi zineten CLIL metodologia erabiltzen? Zergatik?

Science eta *Art English* (hau orain dela 7 urte edo holan)ematen dira, *Robotics* pasadan urtean hasi zan.

2. Zein mailatan eta zer irakasgaitan lantzen duzue? Betidanik izan da horrela edo aldaketak egin dituzue?

Science, *Art English* eta *Robotics* irakasgaiak lantzen ditugu CLIL metodologiarekin.

Science 3.,4.,5. eta 6. mailatan ematen dugu. 3. eta 4.mailan bi orduz astero eta 5. eta 6.mailan hiru orduz astero.

Art English, berriz, lehen hezkuntza osoan ematen dugu bi orduz astero. Honen barruan, 5. eta 6.mailan *Robotics* ere ematen dugu. Urtero, hilabete batez gelak txandakatu egiten dira eta *Robotics* (legoagaz) egiten dute *Art English* beharrea.

Ez da beti horrela izan, ez. Hasiera baten *Science* bakarrik ematen zen, eta gaur egun %23a irakasten da ingelesez (ingeleza kontutan hartuz).

Horretaz gain, orain dela 3 urte hasi ginen hirugarren zikloan *Science* 3 orduz ematen asteen, lehenago 2 ordu ematen zirelako.

3. Ze jarrera dute irakasleek CLIL-aren inguruan?

Motibatuta gaude metodologia aldaketarekin, gauza desberdinak egiteko aukera daukagulako. Materialak sortu behar izan dira, baina erabilgarriak direla eta ikasleek ikasten dutela ikusita motibatu egiten zara aurrera jarraitzeko. Beste alde batetik, ikasleek gero eta ingeles gehiago menperatzen dutela ikusteak posible egiten du aldaketa honekin aurrera jarraitzea.

4. Zein formakuntza dute irakasleek? Badute CLIL-aren inguruko formakuntza espezifikorik? Titulaziorik eskatzen duzue irakasle izateko? Zein?

Ingeleseko irakasleak gara bertan parte hartzen dugunok. Proiektuak sortzeko eta aurrera ateratzeko formakuntzak jaso ditugu baina ez CLIL-era zuzenduak baizik eta eguneroko lanean beharrezko geneukalako proiektuek lan egiteko.

5. Irakasleek badute laguntzarik? Badute sareren bat iritziak eta trukatzeko?

Lehenengo laguntza jasotzen duguna gure kideena da, zerbait beharrez gero eurengana jotzen duzu. Hala ere, ideia berriak hartzeko webgune edo blog desberdinetan begiratzen duzu (sciencekids adb) edota testu liburuetan ere, beste informazio iturri bat baita.

6. CLIL-aren inguruko proiekturen batean sartuta zaudete?

Bai, “Comenius” proiektuan hartzen dugu parte. Europako dimentsioa¹ indartzen duen proiektu bat da eta bertan ikasleek Europako beste leku bateko errealitateak ezagutzeko aukera daukate. Horretaz gain, irakasleen trukeak egiten dira.

Azken urte bietan gure ikastola proiektu buru izan da eta aurrera ateratzeko proiektua janari tipikoen ingurukoa izan da. Bertan, bloga erabiltzen da Comeniusen egiten diren ekintzak erakusteko.

7. Zelako jarrera dute gurasoek CLIL-aren aurrean?

Pozik daude euren seme alabak atzerriko hizkuntzan hobetzeko askoz ere baliabide gehiago dituztelako.

8. Eta ikasleek?

Ikasleentzat ere motibagarria da, euren burua gero eta kapazago ikusten dutelako ingelesez berba egiterako orduan. Ikasturteak aurrera joan ahal, hizkuntza horretan berba egiteko konfiantza askoz handiagoa da eta lotsa galtzen dute.

9. Zein metodologia erabiltzen duzue CLIL klaseetan? (jarduera motak, erabiltzen duzuen materiala, IKT-ak, ...)

Proiektuka egiten dugu lan, hiruhilabete osoan gai bat landuz (adb. “The universe”). Lehenengotan liburuak erabiltzen genituen, baina orain guk sortzen dugu materiala. Honek aukera ematen digu materiala ikasleen beharrianetara moldatzeko. Liburuaren desagertuarekin batera, gurasoengan materialak eskura izatearen segurtasuna galdu zen, eta arazo honi aurre egiteko asmoz, *Science* eta *Art English*-eko blogak eta Science twitterra sortu ziren.

¹ < <http://www.vub.ac.be/gst/eurobio/9eb.html> >

Klaseak ematerako orduan IKT-ak asko erabiltzen ditugu: diapositibak, bideoak, jolas interaktiboak,... Azalpenak ematerako orduan, diapositibak erabiltzen ditugu normalean, eta ondoren, azaldutako edukiak hobeto lantzeko, fitxa batzuk egiten ditugu, azaldutako edukiekin zerikusia dutenak. Teknologia berriez gain, ariketa dinamikoak eta motibagarriak egiten saiatzen gara eta ikasleak haien inguruko munduarekin kontaktuan jartzen (esperimentuak eginez, azaldutako edukiak hobeto ulertu eta barneratzeko inguruko adibideak ipiniz,...)

10. Zailtasunik aurkitzen duzue CLIL-a aurrera eramatean? Zein?

Ingelesez direnez, abantaila bat material asko dagoela da, baina horren ondorioa da balio ez duen material asko egotea.

Bestalde, IKT-ak asko erabiltzen ditugunez, sarea jausten denean edo ordenagailuarekin arazoren bat dugunean plan B bat atera behar dugu.

11. Zer nolako emaitzak lortzen ari zarete CLIL-arekin hizkuntzari dagokionez? Eta zer nolako emaitzak edukiei dagokienez?

Emaitza positiboak jasotzen ditugu bai hizkuntzaren aldetik eta baita edukien aldetik ere. Horren adibidea da, pasadan urtean egin genuen irteera batean, landareen inguruko azalpenak ematen ari zen monitoreari, azalpenak ingelesez eman ahal zituen galdetu ziotela ikasleek, eta bertako hiztegia ingelesez zekitel.

2. eranskina

GALDETEGIA

Erantzun mesedez galdera hauei. Ez da erantzun zuzenik edo okerrrik, denek berdin balio dute. Zuk zure ustea edo iritzia zintzoki adierazi behar duzu, besterik gabe.

Zein hizkuntza erabiltzen duzu etxean?

Euskera	Gaztelera	Euskera eta gaztelera
---------	-----------	-----------------------

1-Uste duzu, Science irakasgaiarekin ingeles gehiago ikasten duzula?

Bai	Ez	Ez dakit
-----	----	----------

2-Uste duzu, Science euskaraz izango balitz, zientzien inguruan gehiago ikasiko zenukeela?

Bai	Ez	Ez dakit
-----	----	----------

3-Zailagoa egiten zaizu Science irakasgaia, ingelesez delako?

Bai	Ez	Ez dakit
-----	----	----------

4- Science ingelesez ikasteak eskatzen duten esfortzuak merezi duela uste duzu?

Bai	Ez	Ez dakit
-----	----	----------

5-Ingelesa ikastea garrantzitsua dela uste duzu?

Bai	Ez	Ez dakit
-----	----	----------

6-Euskara ikastea garrantzitsua dela uste duzu?

Bai	Ez	Ez dakit
-----	----	----------

7-Gaztelera ikastea garrantzitsua dela uste duzu?

Bai	Ez	Ez dakit
-----	----	----------

8-Gustatzen zaizu irakasgai batzuk ingelesez izatea?

Bai	Ez	Ez dakit
-----	----	----------

9-Datorren urtean Science ingelesez egiteko edo euskaraz egiteko aukerarik izango bazenu, zein aukeratuko zenuke?

Ingelesez

Euskaraz

10- Datorren urtean sciencez gainera beste ikasgairen bat gehiago ingelesez egiteko aukerarik bazenu, egingo zenuke?

Bai

Ez

Ez dakit

11-Gustatzen zaizu Science irakasgaia?

